

Preparados...
...prest, igo!

INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK



LANBIDE-ARLOAK INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK - IFC GOI-MAILA SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

Zer ikasiko dut? Zer egingo dut?

Informatika-sistemak konfiguratzea, administratzea eta mantentzea, sistemaren funtzionaltasuna, bere baliabideen osotasuna eta zerbitzuak bermatuta, betiere eskatutako kalitatearekin eta indarrean dagoen arautegia betez.

Profesional hau gai izango da:

- Zerbitzariko sistema eragileak administratzeko, eta, eginkizun horretan, softwarea instalatzeko eta konfiguratzeko, kalitate-baldintzetan, sistemaren funtzionamendua ziurtatzera begira.
- Sareko zerbitzuak administratzeko (web, mezularitza elektronikoa eta fitxategi-transferentzia, besteak beste), eta, eginkizun horretan, softwarea instalatzeko eta konfiguratzeko, kalitate-baldintzetan.
- Datu-baseak ezartzeko eta kudeatzeko, eta, eginkizun horretan, kudeaketa-softwarea instalatzeko eta administratzeko, kalitate-baldintzetan, ustiapenaren ezaugarrien arabera.
- Hardware gailuen errendimendua ebaluatzeko, eta hobekuntza-aukerak identifikatzeko, funtzionamendu-beharren arabera.
- Sare telematikoen azpiegitura zehazteko, eta, eginkizun horretan, eskemak egiteko eta tresneria eta elementuak hautatzeko.
- Komunikazio-tresneria sare telematikoen azpiegiturretan integratzeko, eta haien konektagarritasuna ziurtatuko duen konfigurazioa zehazteko.
- Erabiltzaileak ustiapen-zehaztapenen arabera administratzeko, eta sarbideak eta sistemaren baliabideen erabilgarritasuna bermatzeko.
- Sistemaren disfunczioak diagnostikatzeko eta haren funtzionaltasuna berrezarriko duten neurri zuzentzaileak hartzeko.
- Bere arloko baliabideen mantentze-lanak kudeatzeko eta/edo egiteko (lan horiek programatuz eta betetzen direla egiaztatuz), lan-kargen eta mantentze-planaren arabera.

Irakaskuntza hauek laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko jarduerak gauzatzeko beharrezko ezagupenak hartzen dituzte barnean.

Zer-nolako lan-irtenbideak izango ditut?

- Sistemaren administrazioko teknikaria.
- Informatikako arduraduna.
- Internet zerbitzuetako teknikaria.
- Mezularitza elektronikoko zerbitzuetako teknikaria.
- Laguntza eta euskarri teknikoko langilea.
- Telelaguntzako teknikaria.
- Datu-baseen administrazioko teknikaria.
- Saretako teknikaria.
- Sistemaren gainbegiratzailea.
- Komunikazio-zerbitzuetako teknikaria.
- Web inguruneetako teknikaria.

Prestakuntza-plana:

Hauek dira heziketa-ziklo honetako lanbide-moduluak:

- Sistema eragileak ezartzea. (264 o.)
- Sareak planifikatzea eta administratzea. (198 o.)
- Hardware oinarriak. (99 o.)
- Datu-baseak kudeatzea. (198 o.)
- Markatzeko lengoaiak eta informazioa kudeatzeko sistemak. (132 o.)
- Sistema eragileak administratzea. (120 o.)
- Sareko zerbitzuak eta Internet. (120 o.)
- Web aplikazioak ezartzea. (100 o.)
- Datu-baseak kudeatzeko sistemak administratzea. (60 o.)
- Segurtasuna eta erabilgarritasun handia. (100 o.)
- Sareko informatika-sistemak administratzeko proiektua. (50 o.)
- Ingeles teknikoa (40 o.)
- Laneko prestakuntza eta orientabidea. (99 o.)
- Enpresa eta ekimen sortzailea. (60 o.)
- Lantokiko prestakuntza. (360 o.)

APÚNTATE A UNA FORMACIÓN SOBRESALIENTE PRESTAKUNTZA BIKAIN BATERA APUNTATU ZAITEZ

944 103 837



Lehendakari Agirre, 29 1º 48014 Deusto Bizkaia
Junto a la boca de Metro



www.almi.eus